

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Jendaurrean jartzea hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko errolda eta kobratzeari ekitea

Behin-behineko onespena eman zaio hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko erroldari, eta jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunetan, interesdunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsizat joko da, eta kobratzeko aldiari hasiera emango zaio.

2020ko urriaren 19tik abenduaren 18ra bitartean, bi egun horiek barne, egun baliodunetan, hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak ordaindu ahal izango dira borondatezko epean.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek, ordainketa helbideratuta ez badute, Arraia-Maeztuko Udalak Maeztuko banku erakundearen duen kontuan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, epe horretan. Ordaindu aurretik, zergapekoek udal bulegoetan jaso beharko dituzte ordainagiriak, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banku erakunde edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin ahal izango dutela ordainketa. Helbideratuta dauden ordainagiriak banketxeetan kobratuko dira, 2020ko azaroaren 30ean.

Epe hori igarotakoan premiamendu bidez kobratuko da, halaxe xedatzen baitu Zergabilketarako Araudi Orokorrak. Kobratu beharrekoari, berriz, lege ezarritako errekarua ezarriko zaio eta, hala badagokio, berandutzen interesak eta sortzen dituen kostuak ere bai.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Maeztu, 2020ko uztailaren 14a

Alkatea

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA